# GORABIDE

Nº 274 Zk.
2018ko AZAROA
NOVIEMBRE DE 2018

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA


Calidad plena despliegue


INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

Orientación infanto-juvenil
Haur-gazteentza-ko orientazioa
pg. 4 or.



Afectividad y sexualidad
Afektibitate eta sexualitatea
pg. 6 or.



Presentación con Bilbao Kirolak
Aurkezpena Bilbao Kirolakekin
pg. 8 or.


# Participamos en el Gsef 2018 y en la 24ª Semana Europea

24 SEMANA EUROPEA
KUDEAKETA AURRERATUA
GESTIÓN AVANZADA
19-31 OCTUBRE URRIA 2018

Gsef - BILBAO 2018
GLOBAL SOCIAL ECONOMY FORUM





# Gsef 2018 foroan eta 24. Europar Astean parte hartu dugu



## Tercera propuesta de familias para familias: Taller de juegos (pg. 5)

## Familietatik familientzako hirugarren proposamena: Harrera taldea (5. or.)

# Participamos en el Gsef 2018 y en la 24ª Semana Europea

*En el Foro Global de Economía Social, expusimos nuestra alianza con la Diputación; y en el congreso de Euskalit, la innovación aplicada a la planificación de apoyos*

**Dentro de nuestra estrategia de compartir conocimiento como contribución para el desarrollo del tercer sector en beneficio de toda la sociedad en su conjunto, hemos estado presentes en el Foro Global de Economía Social Gsef 2018, y en un nuevo congreso organizado por Euskalit con motivo de la 24ª Semana Europea de la Gestión Avanzada.**

El Gsef 2018, celebrado entre el 1 y el 3 de octubre en Bilbao, reunió a más de 1.700 personas de 84 países diferentes, entre representantes institucionales, de la economía social y del tercer sector, con el objetivo de compartir perspectivas y experiencias para continuar avanzando hacia una sociedad inclusiva, igualitaria y centrada en las personas, mediante la creación de empleo de calidad, crecimiento justo y un desarrollo sostenible. En ese foro, presentamos en formato póster el modelo de gobernanza que compartimos con la Diputación Foral de Bizkaia desde hace más de 50 años, en favor de las personas con discapacidad intelectual. El panel incluía información sobre el contexto en el que se da esa alianza, su carácter bidireccional, el valor que aporta en la detección de necesidades, su incidencia en la mejora de procedimientos de intervención y los resultados obtenidos en cocreación de políticas públicas y servicios.

## Gestión avanzada

Por su parte, nuestra undécima participación en la Semana Europea de la Gestión Avanzada organizada por Euskalit tuvo lugar el 23 de octubre y se centró en la innovación. Concretamente, presentamos nuestro sistema de implantación de la planificación centrada en la persona (PCP) en nuestros centros, como ejemplo de despliegue de la innovación a través de los procesos orientados a clientes.

La presentación corrió a cargo de Rakel Elgeta, directora de nuestra Unidad de Planificación y Gestión de Apoyos; Cristina Quiroga, directora de nuestra Residencia Ibarreta-Zuloko; Mónica Romero, directora de nuestra Residencia Atxarte; y Arrate Llanos, coordinadora de nuestra Residencia de Artzentales. Entre todas, explicaron qué entendemos en Gorabide por clientes, las características y evolución de nuestro Proceso Operativo de Planificación y Seguimiento de Apoyos, y el impacto que tiene la PCP en el enfoque y despliegue de los apoyos en los centros.

Además, Jacob Gil, director de nuestro Departamento de Personas, expuso las claves de la evaluación y ajuste del sistema de gestión por competencias, dentro de la jornada organizada en el mismo congreso por el Foro de Indicadores del Tercer Sector del que formamos parte.



Foro Global de Economía Social 2018 — Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroa 2018



Semana Europea de la Gestión Avanzada — Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astea

LECTURA FÁCIL

Intentamos contribuir a mejorar la sociedad compartiendo lo que hacemos bien.
Así, hemos presentado en un foro internacional la alianza que tenemos con la Diputación.
También hemos estado en un congreso explicando cómo llevamos a los centros la planificación centrada en la persona.





# Gsef 2018 eta 24. Europar Astean parte hartu dugu

*Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroan, Aldundiarekin daukagun aliantza aurkeztu genuen; eta Euskaliten kongresuan, laguntzen plangintzan aplikatutako berrikuntza*

**Gizarte osoari onura ekartzeko helburuarekin, hirugarren sektorearen garapenean lagundu eta ezagutza partekatzeko estrategia daukagu abian. Horren barruan, Gsef 2018 Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroan egon gara, hain zuzen; eta Euskalitek antolatutako kongresuan, Kudeaketa Aurreratuaren 24. Europar Astea dela eta.**

Gsef 2018 foroa urriaren 1a eta 3a bitartean izan zen, Bilbon. 84 herrialdetako 1.700 pertsona elkartu ziren: erakundeetako, ekonomia sozialaren arloko eta sektore sozialeko ordezkariak, berdintasunezko eta pertsonengan zentratutako gizarte inklusibo bat eraikitzeko lanean jarraitzeko esperientziak eta ikuspegiak partekatzeko asmoz, betiere kalitatezko enplegua, bidezko hazkundea eta garapen iraunkorra sustatuz. Foro horretan Bizkaiko Foru Aldundiarekin partekatzen dugun gobernantza ereduaren poster formatua aurkeztu genuen. Izan ere, 50 urte baino gehiago daramatzagu adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko lanean. Panelean aliantza honen testuinguruari buruzko informazioa jaso genuen: lanaren elkarrekikotasuna, beharrizanak antzemateko lanean ematen digun balioa, esku-hartze prozesuen hobekuntza eta politika publiko eta zerbitzuen baterako sorkuntzan lortutako emaitzak.

## Kudeaketa aurreratua

Bestalde, Euskalitek antolatutako Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astean parte hartu dugu hamaikagarren aldiz. Urriaren 23an izan zen eta berrikuntza izan zuen ardatz. Zehazki, pertsonengan oinarritutako plangintza gure zentroetan ezartzeko sistema aurkeztu genuen, bezeroengana bideratutako prozesuen bidezko aplikatzen dugun berrikuntzaren adibide gisa.

Aurkezpena egiteaz arduratu ziren Rakel Elgeta, Laguntza Plangintza eta Kudeaketa unitateko zuzendaria; Cristina Quiroga, Ibarreta-Zuloko Egoitzako zuzendaria; Mónica Romero, Atxarte Egoitzako zuzendaria; eta Arrate Llanos, Artzentaleseko Egoitzako koordinatzailea. Guztien artean azaldu zuten zer diren bezeroak guretzat; Laguntzen Jarraipen eta Plangintza Prozesuaren ezaugarriak eta bilakaera; eta pertsonengan oinarritutako plangintzak daukan eragina zentroetako laguntzen ikuspegi eta zabalkundean.

Gainera, Jacob Gilek, gure Pertsonen Sailako zuzendariak, gaitasunen araberako kudeaketa sistemaren ebaluazio eta doikuntzarako funtsezko ideiak azaldu zituen, Hirugarren Sektoreko Adierazleen Foroak kongresuan bertan antolatutako jardunaldiak. Gu ere Foro horretako kide gara.

IRAKURKETA ERRAZA

Gizartea hobetzen lagundu nahi dugu, ondo egiten dakigu gauzak partekatuz.
Horrela, nazioarteko foro batean aurkeztu dugu Aldundiarekin daukagun aliantza.
Gainera, pertsonengan oinarritutako plangintza zentroetan nola burutzen dugun ere azaldu dugu, kongresu batean.

## información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Servicio de Orientación Infanto- Juvenil

Desde que se puso en marcha el Servicio de Orientación Infanto-Juvenil de Gorabide, se está atendiendo a con 45 menores con discapacidad intelectual o posibilidad de tenerla. A este servicio, se accede a través de la trabajadora social de referencia en nuestra asociación, que deriva la familia a la psicóloga del servicio. En ese momento inicial, se realiza una valoración dedicando un tiempo según la edad y capacidades, observando a través del juego y de la comunicación de ideas y pensamientos, y recogiendo la información que aporta la familia de cómo están yendo las cosas. De este modo, se genera un espacio propicio para que se comuniquen aquellas dudas y dificultades con las que se encuentran en el día a día y en el acompañamiento al crecimiento de su hija o hijo. Posteriormente, desde el servicio se ofrecerán opiniones y sensaciones sobre lo observado y se planificarán conjuntamente aquellas estrategias que puedan favorecer el crecimiento personal de la niña o el niño, integrándolas siempre dentro del cuidado diario y de lo que las familias consideran que son sus objetivos y prioridades.

Además, el servicio presta apoyo para reconocimientos oficiales, prestaciones y recursos económicos y materiales; orientación y apoyo a la gestión de solicitudes de servicios; diagnóstico, valoración, tratamiento y seguimiento psicológico; ayuda en dificultades de convivencia; valoración psiquiátrica inicial y orientación a especialistas; apoyo en el proceso de inclusión educativa; o formación familiar.

# Gizatek

Se ha modificado el Decreto que regula las ayudas del servicio foral de orientación y subvención para productos de apoyo Gizatek con el objetivo de identificar qué productos pueden destinarse a facilitar la labor de quien cuida de la persona en situación de dependencia y a paliar el desgaste físico producido por ese cuidado.

# Haur-gazteentzako Orientazio Zerbitzua

Gorabideren Haur-gazteentzako Orientazio Zerbitzua martxan jarri zenetik, 45 adingaberi arreta ematen ari gara. Adimen desgaitasuna duten edo edukitzeko aukera duten gazteak dira.  Zerbitzu hori baliatzeko, bakoitzaren erreferentziazko gizarte langilearengana jo behar da, eta berak deribatuko du familia zerbitzuko psikologoarengana. Hasieran, balorazio bat egiten da, adinaren eta gaitasunen arabera; jolasaren eta ideia eta pentsamenduen komunikazioaren bidez behaketa egiten da; eta familiak ematen duen informazioa jasotzen da. Horrela, eremu pertsonal bat sortzen da eta gazte bakoitzaren egunerokoan sortzen diren zalantza eta zailtasunen jarraipena egin daiteke. Gerora, zerbitzuaren izenean, behatutako kasuaren inguruko iritzi eta sentsazioak emango dira eta haur edo gazte bakoitzaren hazkuntza pertsonalean lagungarriak izan daitezkeen estrategiak planifikatuko dira, elkarrekin. Horiek eguneroko zainketan integratuko dira, betiere familien helburu eta lehentasunak kontuan izanda.

Gainera, zerbitzuak laguntza ematen du honakoetarako: aitorpen ofizialak, prestazioak eta baliabide ekonomiko eta materialak jasotzeko laguntzak; zerbitzuen eskaerak kudeatzeko orientazioa; diagnostiko, balorazio, tratamendu eta jarraipen psikologikoa; elkarbizitzaren zailtasunen aurrean laguntza ematea; hasierako balorazio psikiatrikoa eta espezialistarengana bideratzea; hezkuntza arloko inklusio-prozesuan laguntza ematea; eta familia prestakuntza.

# Gizatek

Gizatek laguntza produktuetarako orientazio eta dirulaguntzen inguruko foru zerbitzuaren laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatu egin da. Helburua zera da: mendekotasun egoeran dagoen pertsona zaintzen duenaren lana errazteko produktuak identifikatzea, zainketa lan horrek eragiten duen desgaste fisikoa arintzeko asmoz.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# Taller de juegos en familia

***Tercera propuesta "de familias para familias" del grupo de reflexión sobre participación***

*"Jugar es divertido, relaja, nos une, nos ayuda a comunicamos de manera natural. ¿Te acuerdas de tus juegos favoritos? ¿Conoces los juegos favoritos de las personas de tu alrededor? Te proponemos recuperar, por una tarde, las ganas de jugar"*. Así animan Ana y Bea Rojo, hermanas de Elena; Trinidad Santiago, abuela de Cristian; y Margari Portero, madre de Melani a participar en una nueva propuesta "de familias para familias": un taller de juegos para familias, que están preparando con la ayuda de las expertas en dinamización de grupos a través del juego Josune Martínez y Yolanda Vitorio, que colaboran voluntariamente en esta iniciativa. *"El juego estimula la mente, la creatividad y el talento, favorece el aprendizaje y el desarrollo de la inteligencia emocional, fomenta la comunicación, ayuda a gestionar mejor los conflictos. Cuando jugamos, nos colocamos en situaciones ficticias que ayudan a conocernos mejor, a tomar decisiones, a gestionar la frustración y relativizar los problemas. Pero, sobre todo, nos ponemos de buen humor"*, añaden. *"Así que os invitamos a pasar una tarde experimentando diversas formas de jugar, para fomentar las relaciones y divertirnos mayores, jóvenes y peques, con y sin discapacidad intelectual, para finalizar con una merienda. Podréis moveros de una actividad a otra con la libertad que brinda el juego, y cada cual será libre de participar o sólo de estar"*, finalizan.

**Información e inscripciones:**
dianacabezas@gorabide.com
Tel. 94 443 12 10



# Jolas tailerra familian

***Gure parte-hartzeari buruzko hausnarketa taldetik "familetatik familientzako" hirugarren proposamena***

*"Jolastea dibertigarria da; erlaxatu egiten gara, loturak estutzen ditugu eta modu naturalean komunikatzen laguntzen digu. Gogoan dituzu zure jolas gustukoenak? Ba al dakizu zeintzuk diren zure ingurukoen jolas gustukoenak? Arratsalde batez jolasteko gogoa berreskuratzeko aukera proposatzen dizugu"*. Ideia honekin, Elenaren ahizpa diren Ana eta Bea Rojok; Cristianen amona den Trinidad Santiagok; eta Melaniren ama den Margari Porterok denok animatu nahi gaituzte "Familien proposamenak familientzat" ekimenaren jarduera honetara: familientzako jolas tailerra. Jarduera prestatzeko, Josune Martínez eta Yolanda Vitorioren laguntza dute, jolasaren bidez taldeak dinamizatzeko lanean adituak, eta ekimen honetan borondatez parte hartzen ari direnak. *"Jolasak burua, sormena eta talentua estimulatzen ditu, adimen emozionalaren garapena eta ikaskuntza errazten ditu, komunikazioa hobetzen du eta gatazkak hobeto kudeatzen laguntzen du. Jolasten dugunean, fikziozko egoeretan kokatzen gara eta geure burua hobeto ezagutzen, frustrazioa kudeatzen eta arazoak erlatibizatzen laguntzen digute. Baina, batez ere, umore onez egoten gara"*, esan dute. *"Beraz, jolasteko modu desberdinak esperimentatuz arratsaldea pasatzera gonbidatu nahi zaituztegu; txiki, gazte eta nagusien artean harremanak sustatu eta ondo pasatzeko, desgaitasuna izan, zein ez izan. Bukatzeko, merienda egingo dugu. Jarduera batetik bestera askatasun osoz mugitzeko aukera izango dugu eta bakoitzak aukeratuko parte hartu nahi duen edo, beste barik, bertan egon"*, esan dute.

**Informazioa eta izen-emateak:**
dianacabezas@gorabide.com
Tel. 94 443 12 10

# Nuevas claves para abordar la sexualidad en personas con discapacidad intelectual

***El coordinador de nuestro proyecto de afectividad y sexualidad asiste a dos acciones formativas de Plena Inclusión sobre las necesidades de nuestro colectivo de personas usuarias en ese ámbito***

En Gorabide, desarrollamos desde el año 2012 un proyecto de afectividad y sexualidad, con el objetivo de contribuir, con humildad y prudencia, a dar respuesta a las necesidades que plantean respecto a ese tema tanto las propias personas usuarias como sus familias, con interés en impulsar la dimensión de la sexualidad por lo que de pulsión de vida y de calidad de vida conlleva. En ese sentido, el coordinador del proyecto, Javier Bengoa, sexólogo y psicólogo de nuestro Departamento Técnico, ha asistido a dos acciones formativas organizadas por Plena Inclusión en Madrid.

En las 'Jornadas sobre el derecho a la sexualidad de las personas con discapacidad intelectual o del desarrollo', se presentó el posicionamiento de la confederación sobre sexualidad, que ofrece un marco de valores y un mandato institucional. Además, se compartieron buenas prácticas sobre educación sexual, desarrollo de la sexualidad de personas con grandes necesidades de apoyo, los apoyos que requieren las personas con sexualidades diversas y diversas orientaciones sexuales, así como sobre la figura y las posibilidades de apoyo de la asistencia sexual.

Y el 'Seminario sobre asistencia sexual y personas con discapacidad intelectual o del desarrollo' permitió debatir sobre esa figura de apoyo y establecer un punto de partida y de enmarque para su despliegue en los proyectos de futuro personales.



# Adimen desgaitasuna duten pertsonekin sexualitatea lantzeko ideia berriak

***Gure afektibitate eta sexualitate proiektuaren koordinatzaileak Plena Inclusiónaren bi prestakuntza ekintzatan parte hartu du, erabiltzaileek arlo horretan izan ditzaketen beharrizanen inguruan***

Gorabiden afektibitate eta sexualitate arloko proiektu bat garatzen ari gara 2012tik. Helburua zera da: erabiltzaileek zein haien familiek arlo horretan planteatzen dituzten beharrizanei erantzuna ematen saiatzea, umiltasunez eta zuhur jokatuz, betiere. Sexualitatearen dimentsioa ere sustatzea interesgarria iruditzen zaigu, bizi-kalitatean eragina daukan neurrian. Horrela izanik, proiektuaren koordinatzailea den Javier Bengoak, gure Sail Teknikoko sexologo eta psikologia, Plena Inclusión Madrilen antolatutako bi prestakuntza ekintzatan parte hartu du.

Adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonen sexualitatearen eskubideari buruzko Jardunaldietan, konfederazioak sexualitatearen inguruan daukan posizionamendua aurkeztu zuen, balio-esparru baten barruan. Gainera, sexu heziketari eta bestelako gaiei buruzko praktika onez hitz egin zen: laguntza beharrizan handiak dituzten pertsonen sexualitatearen garapena, sexualitate anitzak dituzten pertsonek behar dituzten laguntzak, asistentzia sexuala emateko aukerak eta figurak.

Gainera, adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonei eta asistentzia sexualari buruzko mintegi bat eman zen. Horren inguruan, laguntza eman dezakeen figura horren inguruan hitz egin zen, eta etorkizuneko proiektuetarako abiapuntua eta esparrua markatzeaz.

## OBITUARIO



El 6 de octubre, falleció Rafael Barbier Iturmendi, padre de Maritxu Barbier Zubigaray, viudo de Mª Teresa Zubigaray Salaberri –vicepresidenta de Gorabide entre 1966 y 1984–, directivo de la Caja de Ahorros Vizcaína desde 1966 hasta 1985, e iniciador y primer presidente de la Fundación Tutelar Gorabide (Futubide). Siempre estuvo presente en nuestra asociación, desde los inicios hasta las más recientes asambleas de socios y socias, con una predisposición a colaborar que, compartida con su inseparable Teresa, permitió impulsar numerosos servicios para personas con discapacidad intelectual en Bizkaia: el Centro Ola BBK, talleres ocupacionales, colonias de verano, residencias, clubes de tiempo libre...

Gracias a la aportación de personas como Rafael, Gorabide ha pasado de ser aquella asociación que tenía la sede en un pequeño despacho, y cuyo archivo era una caja de zapatos, a convertirse en una de las entidades referentes del ámbito de la discapacidad intelectual. Como él mismo afirmó a nuestra revista tras recibir el Premio Menchaca a la Solidaridad 2010 conjuntamente con su esposa, *“viendo como se empezó, parece imposible en qué se ha convertido”*.

Descanse en paz.

## HERIOTZA-OHARRA

Urriaren 6an, Rafael Barbier Iturmendi hil zen, Maritxu Barbier Zubigarayren aita eta María Teresa Zubigaray Salaberriren -1966 eta 1984 urteen artean Gorabideko presidenteordea izandakoaalarguna. Bizkaiko Aurrezki Kutxako zuzendari izan zen 1966tik 1985era eta Gorabide Tutoretza Fundazioaren (Futubide) lehenengo presidentea. Beti izan da oso garrantzitsua gure elkartean, hasierako garaietatik duela gutxira arte, bazkideen bileretan. Beti egon zen laguntzeko prest, bere emazte Teresarekin batera eta, haien lanaren ondorioz, adimen desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu ugari jarri ziren martxan Bizkaian: Ola BBK zentroa, tailer okupazionalak, udalekuak, egoitzak, aisialdi klubak…

Jaio zenean, Gorabide bulego txikian egoitza soziala zeukan eta artxiboa zapata kutxa batean, baina Rafaelen moduko pertsonen ekarpenari esker, gure elkartea adimen desgaitasunaren arloko entitate erreferenteetako bat izatera heldu da. Berak esan zuen moduan, 2010ean, bere emaztearekin batera Elkartasunaren Menchaca Saria jaso zuenean. *“ikusita nola hasi ginen, ezinezkoa dirudi honaino heldu izana”*.

Goian bego.

## LABURRAK BREVES

### Creamos el distintivo Gorakide

Con el objetivo de valorar el compromiso de entidades y particulares de Bizkaia con las personas con discapacidad intelectual, hemos creado el distintivo Gorakide, con diseño de la agencia Trupp. En la presentación oficial, que realizaremos con el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia, anunciaremos 100 Gorakides, a los que se irán sumando quienes participen en nuestros programas de sensibilización.

### Gorakide ezaugarria sortu dugu

Bizkaiko erakunde eta partikularrek adimen desgaitasuna duten pertsonen alde daukaten konpromisoa baloratzeko xedez, Gorakide ezaugarria sortu dugu, Trupp agentziaren diseinuarekin. Aurkezpen ofizialerako Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izango dugu eta 100 Gorakide aurkeztuko ditugu. Hemendik aurrera gure sentsibilizazio programetan parte hartzen dutenak horiekin bat egiten joango dira.

### Jornada BBK sobre discapacidad

La 4ª Jornada BBK sobre Discapacidad abordará la situación actual del empleo de las personas con discapacidad intelectual, con entidades expertas como Lantegi Batuak.

### BBK desgaitasunari buruzko jardunaldia

Desgaitasunari buruzko 4. BBK Jardunaldia adimen desgaitasuna duten pertsonen lan egoerari buruz hitz egingo da, horretan adituak diren erakundeekin, hala nola Lantegi Batuak.

# GORABIDE

NOVIEMBRE DE 2018 | Nº 274 Zk | 2018KO AZAROA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## ARGAZKIA | LA FOTO




**Areto Futbol Egokituko Euskal Ligan dauzkagun taldeek Bilbo ordezkatzen duten eta Udalaren eta Bilbao Kirolak erakundearen babesa daukaten taldeen aurkezpena parte hartu dute.**

**Nuestros grupos de la Liga Vasca de Fútbol Sala Adaptado han participado en la presentación de los equipos que representan a Bilbao y cuentan con el apoyo del Ayuntamiento y Bilbao Kirolak.**

# AGENDA azaroa noviembre

gorabide.com/agenda

### AGRUPACIONES

**Busturialdea (Comisión):** Miércoles 14, a las 18:30.
Kultur Etxea. Foru Plaza (Gernika).

**Deusto-San Ignacio (Junta):** Martes 6, a las 19:00.
Club Solas Etxe. Luzarra nº 24 (Deusto).

**Durangaldea (Sesión):** Jueves 29, a las 18:00.
**'El papel de las familias'**
Dinamizada por Lidia Berrio y Diana Cabezas.
Pinondo Etxea. Plaza Pinondo nº 1 (Durango)

**Ermua (Junta):** Lunes 5, a las 19:30.
Aldapa nº2 , bajo A (Ermua).

**Mungialdea (Comisión):** Martes 6, a las 20:00.
Atxurizubi nº 12 (Mungia).

**Santurtzi (Comisión):** Miércoles 28, a las 19:00.
Sabino Arana nº 20-22 (Santurtzi).

### ELKARTEAK

**Busturialdea (Komisio):** Asteazkena 14, 18:30etan.
Kultur Etxea. Foru Plaza (Gernika).

**Deusto-San Ignacio (Batzordea):** Asteartea 6, 19:00etan.
Solas Etxe Kluba. Luzarra, 24 (Deustu).

**Durangaldea (Saioa):** Osteguna 29, 18:00etan.
**'Familien egitekoa'**
Dinamizatzaileak: Lidia Berrio y Diana Cabezas.
Pinondo Etxea. Pinondo Plaza, 1 (Durango)

**Ermua (Batzordea):** Astelehena 5, 19:30etan.
Aldapa, 2 , etxabe A (Ermua).

**Mungialdea (Komisio):** Asteartea 6, 20:00etan.
Atxurizubi, 12 (Mungia).

**Santurtzi (Komisio):** Asteazkena 28, 19:00etan.
Sabino Arana, 20-22 (Santurtzi).

### AUTOGESTORAS/ES

**Los Nuevos:** Lunes 5, de 18:00 a 19:30.
**Jóvenes:** Martes 6, de 18:00 a 19:30.
**Indarra:** Miércoles 7, de 18:00 a 19:30.
**Mujeres 1:** Jueves 8, de 18:00 a 19:30.
**Mujeres 2:** Martes 13, de 18:00 a 19:30.
Todas la reuniones: Licenciado Poza nº 14, 2º (Bilbao)

### AUTOGESTOREAK

**Berriak:** Astelehena 5, 18:00-19:30.
**Gazteak:** Asteartea 6, 18:00-19:30.
**Indarra:** Asteazkena 7, 18:00-19:30.
**Emakumeak 1:** Osteguna 8, 18:00-19:30.
**Emakumeak 2:** Asteartea 13, 18:00-19:30.
Bilaketa guztiak: Poza Lizentziatua kalea, 14 - 2. (Bilbo)

### FORMACIÓN FAMILIAR

**Familias de escolares:** Jueves 15, de 18:00 a 19:30.
**Familias de jóvenes:** Lunes 26, de 18:00 a 19:30.
**Familias de personas adultas:** Jueves 22, 18:00-19:30.
**Abuelas y abuelos:** viernes 16, de 11:00 a 12:30.
**Taller de cómics para hermanas/os (de 6 a 16 años)**
Viernes 16, de 18:00 a 20:00.
Todas la reuniones: Licenciado Poza nº 14, 2º (Bilbao)

### FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**Eskola-umeetako familiak:** Osteguna 15, 18:00-19:30.
**Gazteetako familiak:** Astelehena 26, 18:00-19:30.
**Helduetako familiak:** Osteguna 22, 18:00-19:30.
**Aitita-amamak:** Ostirala 16, 11:00-12:30.
**Komiki tailerra neba-arrebentzat (6-16 urte)**
Ostirala 16, 18:00etatik 20:00etara.
Bilaketa guztiak: Poza Lizentziatua kalea, 14 - 2. (Bilbo)

D.L./L.G. BI-394-2014